

## TESTU BATEGINA

### 2025EKO MAIATZAREN 9KO, 51 ZENBAKIKO ALHAOn ARGITARATUTAKO ALDAKETAK DITU

**GASTEIZKO UDALAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK. ESKALA: ADMINISTRAZIO BEREZIA; AZPIESKALA: ZERBITZU BEREZIAK; MOTA: ZEREGIN BEREZIAK, TXIRULA-JOTZAILEA (05C1 kodea)**

#### 1. DEITUTAKO LANPOSTUAK

Plaza bat betetzeko deia egiten da. Eskala: Administrazio Berezia (2230C); azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak, txirula-jotzailea; taldea: C; azpitaldea: C1.

Deitutako plazak bat datoz 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan (2022ko maiatzaren 23ko ALHAO, 59. Zk.) eta horren aldaketan (2024ko uztailaren 1eko ALHAO, 73. zk.) jasotakoekin.

#### 2. HAUTAKETA-PROZESUA ETA -SISTEMAK

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidezkoa izango da, eta honako hautaketa- eta banaketa-sistema hauen arabera garatuko da:

- Txanda irekiko sistema: plaza 1 (1. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun-data iraungi gabe).

#### 3. PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Oinarri orokorretan adierazten diren betebeharez gain, izangaiek honako hauek ere bete beharko dituzte:

- Titulazioa: Batxilergoko titulua, goi-mailako prestakuntza-zikloko teknikari-titulua edo baliokideak eta erdi-mailako musika-irakaslearen titulu ofiziala (txirula-espezialitatea) izatea, edo horiek eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

- Inskripzio-tasa: eskabideak aurkezteko epearen barruan, onartzeko unean indarrean dagoen titulazio-taldeari dagokion tasa ordaindu izana (7.13 tasa. Azterketak egiteko Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala; 12,45 euro C taldeentzat 2024an).

#### 4. LANPOSTUAREN KATALOGOA.

Hautaketa-prozesu honen webgunean eskuragarri dago txirula-jotzailearen lanpostuaren katalogoa. Bertan jasota daude lanpostu horien funtzioak eta betekizunak.

#### 5. HAUTAKETA-PROZESUA

Erreferentziako oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuak oposizio-fase bat izango du, baztertzailea; lehiaketa-fase bat, ez-baztertzailea; eta

praktikaldi bat, baztertzalea. Oinarri orokorreki dagokienez, zehaztapen hauek ezartzen dira:

## 5.1.- Oposizio-fasea

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzaleak. Gehienez eskura daitekeen puntuazioa: 83 puntu.

### 5.1.1.- Sarbide libreko sistema

**5.1.1.1.- Lehenengo ariketa:** Ezagutza tekniko eta administratiboak. Nahitaezkoa eta baztertzalea. Gehieneko puntuazioa: 35 puntu; gutxienekoa: 17,5 puntu. Test moduko 2 proba egin beharko dira, erantzuteko 4 aukera ematen direlarik, oinarri hauen eranskinetan ageri diren gaien inguruan. Erantzun zuzenengatik 1,00 puntu emango da, eta okerrengatik, 0,33 kenduko. Erantzun baliogabe edo anitzengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez punturik emango ez kenduko.

- **5.1.1.1.1.- 1. proba.** Oinarri hauei dagokion **gai-zerrenda orokorrarekin lotutakoa**. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.
- **5.1.1.1.2.- 2. proba.** Oinarri hauei dagokion **gai-zerrenda espezifikoarekin lotutakoa**. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehieneko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

**5.1.1.2.-Bigarren ariketa:** Nahitaezkoa eta baztertzalea. Gehieneko puntuazioa: 48 puntu. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zereginekin zuzenean loturikoak. Ariketa gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitza balioesteko irizpideak gehituko dizkio galdera-koadernotxoari, baita puntuak esleitzeko zuzenketa-formula ere, halakorik bada.

**5.2.- Lehiaketa-fasea:** Lehiaketa-fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, honako irizpide hauen arabera:

**5.2.1.-Esperientzia profesionala.** Administrazio eta erakunde publikoetan C taldeko (C1-C2) funtzionario gisa eta antzeko maila profesionaleko lan-kontratadun langile gisa izandako esperientzia profesionala balioestea, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, deitutako lanpostuaren edukiarekin eta eginkizunekin zuzenean lotuta badaude eta lanpostu horiek betetzeko beharrezkoa bada Batxilergoko titulua, goi-mailako prestakuntza-zikloko teknikari-titulua edo baliokideak eta erdi-mailako musika-irakaslearen titulu ofiziala (txirula-espezialitatea) izatea.

Egun bakoitzeko 0,007 puntu emango da (15 puntu gehienez). Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat.

Ondorio horietarako, honako hauek ere balioetsiko dira: izangaiek senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna erraztea edo bitzita pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea xede

duten lanaldi-murrizketekin edo baimenekin emandako denbora; eta emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenen bidez baliatutako denbora.

Epaimahaiak ezartzen duen unean eta moduan deklaratu eta egiaztatuko dira egindako zerbitzuak epaimahai kalifikatzailearen aurrean. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan emandako zerbitzuak beti alegatu beharko dira, baina epaimahaiak eskatzen duenean baino ez dira egiaztatu beharko, baldin eta ezin badu ofizioz egiaztatu elkarreragingarritasun-plataformaren bidez (NISAE).

NISAEren bidez egiaztatzerik ez bada, eskumena duen organoak emandako ziurtagirien bitartez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak (lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira bertan). Ez dira balioetsiko zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen alokairu-kontratuak, bekak ezta prestakuntza-praktikak ere. Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat. Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak baldin eta honako datu hauek espresuki adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski deskriptiboa edo erreferentziazkoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.
- Lanpostuaren titulazio-taldea edo sartzeko eskatzen den titulazioa, izenagatik hori ondorioztatu ezin den kasuetan. Horretarako, lanpostuen katalogoak erants dakizkioke ziurtagiriari.

**5.3.- Euskara jakitearen balioespena.** Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren edo horretarako proban egiaztatzen dena balioetsiko da, lanpostuak esleitura duena aintzat harturik. Hauxe izango da baremoa:

- 1. HE: 5,00 puntu

**5.4.- Praktikaldia:** Lehiaketa- eta oposizio-faseetako emaitzak aintzat harturik, epaimahaiak hiru hilabeteko praktikaldirako izangaiak proposatuko ditu, eskaintzan zenbat lanpostu diren, horrenbeste izangai; epe horretan, lanpostuari dagokion ordainsari osoa jasoko dute. Karrerako funtzionario izendatuak izatekotan, hautaketa-prozesuko aldi hau ere gaingitu beharko dute proposatutako izangaiek. Azken fase horretan, trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira bereziki, eta lanpostuan jarduteko betekizunetara egokitzen diren. Funtzio Publikoaren Saileko Giza Baliabideen Zerbitzua arduratuko da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzeaz. Orobat, praktikaldia bukatzean, eta tutorearen proposamena aintzat hartuta, ebaluazio-proposamen bat egingo du —'gai' / 'ez gai'—, behar bezala arrazoiturik —kontuan izan beharko baitu praktikaldia gaingitu den ala ez, baita lanbide profilerako egokitasuna ere—, eta Funtzio Publikoaren Saileko zuzendariari igorriko dio.

Praktikaldiak barne hartuko ditu egokitzen jotzen diren prestakuntza-ekintzak. Praktiketara dauden langileei aurretik jakinaraziko zaie zein ezaugarri duen fase horrek, zenbat iraungo duen, nor izango duten tutore, zein izango den ebaluazio-sistema eta zein prozedura dagoen ez gaitzat jotzeko proposamenak errekurritzeko. Praktikaldia bukatzen denetik eta lanpostuaz jabetu bitartean izangaiak aukeran izango du dela praktikaldiko funtzionario gisa jarraitu, dela izendapen hori bukatutzat jo.

## **GAI-ZERRENDA**

### **GAI-ZERRENDA OROKORRA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. Eskubide eta betebeharrak (10. artikulutik 52.era).
2. Estatuaren lurralde-antolakuntza. Autonomia-erkidegoak: ezaugarriak, eraketa eta antolaketa. VIII. titulua (137. artikulutik 158.era).
3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak (10. artikulutik 23.era). II. titulua. Euskal Herriaren aginteak (24. artikulutik 33.era).
4. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: udalerriko auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak (43. eta 44. artikulua); zerbitzu-kartak (45. eta 46. artikulua); gobernu irekia (47. artikulutik 49.era).
5. Kode Zibila: Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak, arau juridikoen aplikazioa, arau juridikoen eta nazioarteko zuzenbide pribatuko arauen eraginkortasuna (1. artikulutik 12.era).
6. 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. Udalerria (11. artikulutik 18.era). X. titulua. Biztanle-kopuru handiko udalerrak (121. artikulutik 137.era).
7. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Denbora-dimentsioa. Epe-mugak eta epeak (29. artikulutik 33.era). Administrazio-egintzak eta egintzen efikazia (34. artikulutik 52.era).
8. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea (55. artikulutik 68.era); funtzionarioen administrazio-egoerak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen arabera (136. artikulutik 160.era)
9. 31/1995 Legea, Lan Arriskuaren Prebentzioari buruzkoa. III. kapitulua - Eskubideak eta betebeharrak (14. artikulutik 29.era) V. kapitulua - Langileak kontsultatzea eta langileen partaidetza (33. artikulutik 40.era).
10. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua eta I. tituluko I. kapitulua.
11. 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena: I. kapitulua - Xedapen orokorrak; II. kapitulua - Printzipioak; III. kapitulua - Interesdunaren eskubideak.
12. Gasteizko Udalaren antolakuntza politikoa. Organoak eta funtzioak. Gasteizko Udalaren administrazio-antolakuntza. Organigrama.

13. Herritarrentzako Arreta. Herritarrei arreta emateko bideak (udal webgunea, 010, herritarren postontzia, herritarrei laguntzeko bulegoak, udal erregistroa, arreta espezializatuko bulegoak).

14. Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: kontzeptua, ezaugarriak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Identifikatzeko eta sinatzeko baliabide digitalak. Gasteizko Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Ordenantza (10. artikulutik 16.era eta 22. artikulutik 24.era).

15. Herritarren partaidetza. Parte hartzerako organoak eta bitartekoak. Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoa. ALHAO, 54 zk., 2022ko maiatzaren 11koa (azken aldaketa).

## **GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOA**

16. Gasteizko Udal Musika Banda. Historia eta diskografia.

17. Gasteizko Udal Musika Banda. Arlo sozio-educatiboa.

18. Gasteizko Udal Musika Banda. Lanpostuko zeregin espezifikoaren katalogoa: 1121-Txirula-jotzailea.

19. Banda edo haize-multzorako orkestratzea. Banda versus haize-multzoa. Perkusio atala, bandan. Bandarako partitura prestatzea. Partitura kondentsatuak. Orkestra bandara transkribatzea.

20. Banda edo haize-multzoa orkestrarako transkribatzea.

21. Zurezko haize-instrumentuen atala. Eraikuntza. Sailkapena. Transposizioaren printzipioa. Jotzeko teknikak. Zurezko instrumentuentzat orkestratzea.

22. Flauta. Piccolo. Flauta kontralto. Flauta baxua.

23. Oboea. Adar ingelesa. Oboearen familiako beste kide batzuk.

24. Klarineta. Errekintoa. Klarineta baxua. Klarinetearen familiako beste kide batzuk.

25. Saxofoia.

26. Fagota. Kontrafagota.

27. Metalezko haize-instrumentuen atala. Serie harmonikoa. Zilindroak, balbulak eta irristailuak. Erregistroa. Soinuaren igorpena, artikulazioa eta pikatua. Metalezko instrumentu guztien ezaugarri eta efektu komunak. Sordinak.

28. Tronpa.

29. Tronpeta, korneta. Tronpetaren familiako beste instrumentu batzuk.

30. Tronboia. Tronboiaren familiako beste instrumentu batzuk.
31. Tuba. Tubaren familiako beste kide batzuk.
32. Perkusio-atala. Idiofonoak. Membranofonoak. Kordofonoak. Aerofonoak.
33. Elementu formalak eta horien osaera. Erritmoa, melodia eta harmonia. Gaia, motiboa eta diseinua. Gaia errepikatzea eta eraldatzea. Garapen tematikoa eta moldaera melodikoa. Esaldi musikala. Iktusa eta konpasa. Ideia melodikoen hasierak edo bukaerak zehazten dituzten mota erritmikoak. Esaldiaren eta haren zatiketen hedadura.
34. Mota formalak, oro har. Mota formal txikiak. Mota primario txikia. Mota bitar txikia. Mota hirutar txikia. Mota formal handiak.
35. Bariazioa. Definizioa, motak. Egitura.
36. Kontzertua edo "concertoa". Definizioa. Concerto grosso. Kontzertu preklasikoa. Kontzertu klasikoa. Kontzertu posklasikoa. Bakarlaria eta orkestra. Kadentzia. Kontzertu bikoitza eta hirukoitza.
37. Obertura eta preludioa. Definizioa. Opera laburtzen duen obertura eta mosaiko-obertura. Wagnerrez geroztiko obertura. Obertura eta preludioa, obra independente gisa.
38. Poema sinfonikoa. Definizioa. Aurrekariak. Itxura formala. Antzeko konposizioak. Bilakaera.
39. Mugimenduak edo erritmoak definitutako konposizioak. Ezaugarriak. Martxa, polonesa, mazurka, balsa eta tarantela.
40. Erritmoari eta formari dagokienez ezaugarri berezirik ez duten konposizioak. Fantasia, kapritxoa, tokata, pastorala, impromptua, hitzik gabeko erromantza, balada, rapsodia, une musikala.